

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Oposizioak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2753

1055/2026 EBAZPENA, ekainaren 11koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez izendatzen baita teknikari laguntzaile sanitarioen lanbide-taldeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko epaimahai kalifikatzailea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetarako (2025. eta 2026. urteetan argitaratzen diren teknikari laguntzaile sanitarioen lanbide-taldeko kategorietako destinoen eskaintza-zikloak).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoan oinarritzeko destinoak hornitzeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren prozeduraren oinarriak onartu ziren (2019ko abenduaren 24ko EHAA, 244. zk.).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 26ko 274/2021 Ebazpenaren bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorra deitu zen teknikari laguntzaile sanitarioen lanbide-taldeko erizaintzako laguntzaileen kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundearen destinoetarako (2021eko martxoaren 9ko EHAA, 49. zk.).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 26ko 275/2021 Ebazpenaren bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorra deitu zen teknikari laguntzaile profesionalen lanbide-taldeko farmaziako laguntzaileen kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundearen destinoetarako (2021eko martxoaren 9ko EHAA, 49. zk.).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 26ko 112/2021 Ebazpenaren bidez, zenbait alderdi ezarri ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko epaimahaietako kideak izendatzeko, eta zehaztu zen epaimahai batek bilduko dituela teknikari laguntzaile sanitarioen lanbide-taldeko kategoriak. Ebazpen hori partzialki aldatu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren zuzendari nagusiaren uztailaren 8ko 922/2021 Ebazpenaren bidez.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren apirilaren 27ko 759/2026 Ebazpenaren bidez, zenbait irizpide ezarri ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko epaimahaiak berritzeko eta epaimahaietako kideak izendatzeko.

2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 10.1 oinarriarekin eta aurreko paragrafoan aipatutako ebazpenean ezarritako irizpideekin bat etorritz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak lekualdatze-lehiaketa kalifikatuko duen epaimahai izendatuko du, eta epaimahai hori denboraldi jakin baterako izendatzea aurreikusi ahal izango da, hurrengo esleipen-prozesuetan baremazio- eta balorazio-zereginak egin ahal izateko.

Izendapen hau aipatutako ebazpenean aurreikusitako zozketaren ondoren egin da, eta hautatuak izan diren langileek abstentzio- eta errekusazio-arrazoiak eta dispentsa-arrazoiak aurkezteko emandako epea igaro ondoren.

Adierazitako guztiagatik, eta langileen arloan indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan ahal-menez baliatuz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— 2025ean eta 2026an argitaratzen diren destino-eskaintzen zikloetarako teknikari laguntzaile sanitarioen lanbide-taldeko kategorien lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko epaimahaia izendatzea. Ebazpen honen eranskinean agertzen diren kideek osatuko dute epaimahai hori.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 10.1 apartatua eta Osakidetza zuzendari nagusiaren urtarrilaren 26ko 112/2021 Ebazpenaren lehen apartatua aplikatuz, izendapen hori 2025ean eta 2026an argitaratzen diren destino-eskaintzen zikloak amaitu arte luzatuko da, eta beste bi urte gehiago luzatu ahal izango da dagozkien kideentzat, une oro esperientzia duten epaimahaikideak izan daitezen.

Prozesuen jarraitutasuna bermatzeko eta epaimahaiak beti izan daitezen esperientzia duten kideak, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 26ko 112/2021 Ebazpenak ezarri zuen epaimahaikideen % 50 bi urtez luzatzea, behin bakarrik, eta epaimahaikideen beste % 50 berritzea, eta horrela jokatzeko, hurrenez hurren, deitutako zikloen aldia bi urtean amaitzen den bakoitzean.

Ebazpen hori betez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren apirilaren 27ko 759/2026 Ebazpenaren bidez, epaimahaiko idazkari eta laugarren eta bosgarren bokalak berritzea erabaki zen. Era berean, urtarrilaren 26ko 112/2021 Ebazpenean ebatzitakoa betez, apirilaren 27ko 759/2026 Ebazpenaren bidez erabaki da epaimahaiburu izendatutako pertsonen eta lehenengo, bigarren eta hirugarren bokalen (titularrak zein ordezkioak) izendapena luzatzea.

Luzapena erabakitzen bada, Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez egingo da.

Bigarrena.— Ebazpenak onartzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.— Agintzea ebazpen hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitara dadin.

Laugarrena.— Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 11.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MIREN LOREA BILBAO ARTECHE.

ERANSKINA

EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA

TEKNIKARI LAGUNTZAILE SANITARIOAK

Epaimahaiburua:

- Titularra: Amaia Vallejo Jobajuria.
- Ordezkoa: Ana María Varona Merino.

Lehenengo epaimahaikidea:

- Titularra: María Teresa Val Armentia.
- Ordezkoa: José Luis Velasco Rodríguez.

Bigarren epaimahaikidea:

- Titularra: Raúl Vázquez Salvador.
- Ordezkoa: María Candelaria Valdelvira Serrano.

Hirugarren epaimahaikidea:

- Titularra: Azucena Valbuena Laria.
- Ordezkoa: Borja Vizcarguenaga Ruiz.

Laugarren epaimahaikidea:

- Titularra: José Andrés Balda Mazón.
- Ordezkoa: María José Aparicio Arroyo.

Bosgarren epaimahaikidea:

- Titularra: Lucia Añua Martínez De Antoñana.
- Ordezkoa: Luis Arratibel Suquia.

Idazkaria:

- Titularra: Itxaso Blanco Arraztio.
- Ordezkoa: Arturo Ortega Salazar.